

Mendekotasun prestazioak

Prestaciones de dependencia

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

Prestación económica de asistencia personal

Mendekotasuna duten pertsonen autonomia indartzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak sortutako gastuak ordaintzen laguntzeko dira prestazio hauek. Eguneroko oinarrizko jardueretan bizimodu autonomoagoa izatea bultzatu nahi dute.

Laguntzak mendekotasun graduaren arabera eman ohi dira. 1. graduako mendekotasuna duten pertsonak 300 euro inguru jasotzen dituzte; 2. graduakoek, 400 euro inguru; eta, 3. graduakoek, 600 eta 800 euro artean jaso ditzakete.

Ayuda económica destinada a contribuir a la cobertura de los gastos de la contratación de asistentes/as personales que faciliten la autonomía de las personas con dependencia, así como para adquirir una mayor grado de autonomía en el ejercicio de las actividades básicas de la vida diaria.

Las ayudas se distribuyen según el grado de dependencia. Las personas con dependencia del grado uno podrán percibir alrededor de 300 euros, las de grado dos unos 400 euros y las de grado tres entre 600-800 euros.

Familia ingurunekeo zaintzetarako prestazio ekonomikoa

Prestación económica para cuidados en el entorno familiar

Laguntza ekonomikoaren helburua da familiako zaintzaile ez profesionalak mendekotasuna daukan pertsonari ematen dion arretako gastuak estaltzea.

Laguntza hauek ere mendekotasun graduaren arabera jasotzen dira: 1. graduako mendekotasuna dutenek 180 euro inguru jasotzen dituzte; 2. graduakoek, 300 euro inguru eta 3. graduakoek, berriz, 400 eta 500 euro inguruan jasotzen dituzte.

Ayuda económica destinada a contribuir a la cobertura de los gastos de la atención de la persona en situación de dependencia por parte de un familiar. Estas ayudas, se distribuyen según el grado de dependencia. Las personas con dependencia del grado uno podrán percibir alrededor de 180 euros, las de grado dos unos 300 euros y las de grado tres entre 400-500 euros.



JUBILATU, PENTSIONISTA ETA ADINEKOEI ZUZENDURIKO DIRU-LAGUNTZEN INFORMAZIOA



Laguntzen inguruko informazio gehiago, edota laguntza eskaerak egiteko: Udalaren Gizarte Zerbitzuetan, udaletxeko bigarren solairuan

✉ gizartezerbitzuak@azpeitia.eus

☎ 943 15 71 92



Azpeitiko Udalak bere Gizarte Zerbitzuen bidez, hainbat laguntza eskaintzen dizkie jubilatuei, pentsionistak eta adinekoei. Laguntza nagusienak, etxebizitzari zuzendurikoa izan ohi dira. Ezinbestekoa da laguntza horiek jasotzeko bigarren etxebizitza (norbere etxebizitza/bizileku propioa ez da kontuan hartzen), lokal edota garajerik ez izatea.

El Ayuntamiento ofrece a las/los jubiladas/os, pensionistas y a las personas mayores distintas ayudas. Las ayudas más significativas están ligadas a las necesidades de vivienda. Es imprescindible, para ello, no tener una segunda vivienda (no se toma en cuenta la vivienda propia habitual), garaje o local para obtener estas ayudas.

Diru-laguntza jasotzeko baldintzak

Requisitos para obtener las ayudas

Bakarrik bizi den pertsonak

Personas que viven solas

Urteko pentsioak ezingo du 13.759 euro baino gehiagokoa izan, eta ezingo du 36.691,20 euro baino gehiago izan aurreztuta edota ondasunetan.

La pensión anual no podrá ser superior a 13.759 euros y el ahorro o patrimonio no podrá ser superior a 36.691,20 euros.

Bi pertsona bizi diren kasuetan

En los casos que convivan dos personas

Bien arteko sarreraren baturak ezingo du 17.199 euro baino gehiagokoa izan, eta ezingo du 45.864 euro baino gehiago izan aurreztuta edota ondasunetan.

La suma de los ingresos no podrá ser superior a 17.199 euros y el ahorro o patrimonio no podrá ser superior a 45.864 euros.

Hiru pertsona edo gehiago bizi diren kasuetan

En casos que convivan tres personas o más

Diru sarrerek ezingo dute 18.574 euro baino gehiagokoa izan, eta ezingo du 49.533,12 euro baino gehiago izan aurreztuta edota ondasunetan.

La suma de los ingresos no podrá ser superior a 18.574 euros y el ahorro o patrimonio no podrá ser superior a 49.533,12 euros.

Baldintza horiek betez gero, honako laguntzak eska daitezke:

- Etxebizitza alokairua
- Etxebizitzaren fidantza
- Etxeko mantentze gastuak (argia, gasa, ura, kontribuzioa, etxeko aseguruia)
- Oinarrizko behar larriak
- Etxebizitzaren hipoteka

Las personas que cumplan estos requisitos pueden optar a las siguientes ayudas:

- Alquiler de la vivienda
- Fianza de la vivienda
- Gastos de mantenimiento (agua, gas, luz, contribución, seguro de la vivienda)
- Gastos de primera necesidad
- Hipoteca de la vivienda

Lanbideak eskaintzen dituen laguntzak

Ayudas que ofrece Lanbide

Gutxiengo diru-sarreretara iristen ez diren pentsionistentzat laguntzak eskaintzen ditu Lanbideak, laguntza osagarrien bidez gutxiengora iristeko. Laguntza horiek jasotzeko ere ezin da bigarren etxebizitza, lokal edo bestelakorik izan.

Lanbide ofrece ayudas complementarias a las personas que no llegan a las pensiones mínimas. No optan a estas ayudas las personas con una segunda vivienda, local o garaje.

Bakarrik bizi den pertsonak

Personas que viven solas

36.691,20 euro baino gutxiago baditu aurreztuta edota ondasunetan, eta 9.172 euro baino gutxiago jasotzen baditu urtean, horra iritsi arteko laguntza osagarria jaso dezake.

Si el ahorro o patrimonio es inferior a 36.691,20 euros y su pensión es inferior a 9.172 euros anual, podrá solicitar una ayuda complementaria.

Bi pertsona bizi diren kasuetan

En los casos que convivan dos personas

45.864 euro baino gutxiago badituzte aurreztuta edota ondasunetan, eta 11.466 euro baino gutxiago jasotzen badituzte urtean, horra iritsi arteko laguntza osagarria jaso dezake.

Si el ahorro o patrimonio es inferior a 45.864 euros y su pensión es inferior a 11.466 euros anual, podrá solicitar una ayuda complementaria.

Hiru pertsona edo gehiago bizi diren kasuetan

En casos que convivan tres personas o más

49.533,12 euro baino gutxiago badituzte aurreztuta edota ondasunetan, eta 12.383 euro baino gutxiago jasotzen badituzte urtean, horra iritsi arteko laguntza osagarria jaso dezake.

Si el ahorro o patrimonio es inferior a 49.533,12 euros y su pensión es inferior a 12.383 euros anual, podrá solicitar una ayuda complementaria.